

0232 ZB.KO DEKRETUA

Oiartzun Haranean, bi mila eta hemeretziko martxoaren bostean.

Udal honek deituriko Giza Baliabideetako Arduradun lanpostua lehiaketa-oposaketa irekiaren bidez betetzeko deialdiarekiko Oinarriak 2019/01/09ko 6. zk.-dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. Deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu delarik, Toki Araubideko legeriak ematen dizkidan eskumenaz baliatuz, ondorengo ERABAKI DUT:

Lehena.- Hautaketa prozesuaren Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea, honako kide hauekin:

Lehendakaria:

- *Titularra: Maria Victoria Joaristi Olariaga andrea, Udal Idazkaria. Ordezkoa: Maria Jesús Otaegi Irureta andrea, Oiartzungo Udal Kontuhartzailea.*

Mahaikideak:

— *Titularra: Maria Jesús Otaegi Irureta andrea, Oiartzungo Udal Kontuhartzailea. Ordezkoa: Elixabete Jauregi Imaz andrea, Oiartzungo Udalaren Ekonomilari-Aholkularia.*

— *Titularra: Pilar Alcorta Iruretagoyena andrea. Ordezkoa: Gemma Jauregui Beldarrain andrea; biak ere Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) izendaturik.*

— *Titularra: Jon Zarandona Borreguero jauna, Irungo Udalaren Giza Baliabideetako eta Zerbitzu Orokorretako Burua. Ordezkoa: Aitor Leturiondo Odriozola jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Funtzio Publikoko Zerbitziburua.*

— *Titularra: Elixabete Jauregi Imaz andrea. Ordezkoa: Jasone Susperregi Odriozola; biak ere Oiartzungo Udalaren karrerako funtzionarioak.*

— *Titularra: Itziar Gallastegi Arregi andrea. Ordezkoa: Iratxe Etxebarria Arizmendi andrea. Biak ere Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) izendaturikoak, euskara probarako.*

Idazkaria:

— *Titularra: José Manuel Aduriz Cazabon, Oiartzungo Udalaren Langileria Arduraduna. Ordezkoa: Belen Goya Landa andrea, Oiartzungo Udalaren karrerako Administraria.*

Bigarrena.- Lehendabiziko azterketa, 2019ko martxoaren 20an egitea Udaletxeko Areto Nagusian, goizeko 10:00etan.

Hirugarrena.- Onartutako izangaiei deia luzatzea aurreko puntuan aditzera emandako egun, leku eta orduan, Epaimahaikideak ordu bat lehenagorako deiturik.

Laugarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea, hamar eguneko epea emanez legozkiokeen erreklamazioetarako edo eta akatsak zuzentzeko.



Jexux Leonet Elizegi Alkate jaunak agindu eta izenpetu du, nik neuk Idazkari naizenez ziurtaturik.

